

ANIMALIEN BABESERAKO VI. EUSKAL JARDUNALDIK



Argazkia: Kepa Tamames

BILBAO, 2013ko azaroak 4 | 5 | 6
Bidebarrieta Liburutegia (Alde Zaharra)
19:30

Antolatzailea



Babeslea



Laguntzailea



Oso une berezian datozkigu *Animalien Babeserako VI. Euskal Jardunaldiak*, gizartearen zati haundi batek politikariekiko bere axolababekeria behin eta berriro adierazten duelarik. Testuinguru honetan, komenigarria iruditu zaigu –animalien babesa ardatza harturik– agente politikoak izan daitezela honen gaineko beraien ikuspuntua ematen dutenak, *animalismoa* XXI. mendeko giza komunitatean gero eta garrantzi haundiagoa hartuz baitoa, eta ekimenak, eztabaidak eta erabakiak sektore politikoan bertan gauzatzen direla jakinda. Honela, udal esparrutik (leku txiki zein handiagoetatik) proiektu aitzindariak aurrera atera daitezkeela ikusteko parada izango dugu, animalien aldeko legedia hobetuz. Eta baita entzungo diegu idearioan animalien defentsa eta babesa sartuta dituxten beste alderdi político batzuei ere, nahiz eta oraindik boterean ez egonik. Haiek emango digute ideologia berri honen inguruko iritzia.

Ohitura dugun bezala, *Jardunaldiak* hasi egiten dira debatea protagonista buhurturik. Oraingo honetan zaharra eta, aldiz, polemikoa den gai bat jarrito dugu mahai gainean: *Herri Kirolak*. ¿Berez, tradizioa al da nahikoa ikuskizun publiko batzuk justifikatzeko, edo zertxobait gehiago esan al daiteke errealitate beroni buruz? Batzuek *herri kirolak* eztabaidatik at utzi behar direla dioten bitartean, badaude beste batzuek bertan parte hartzen duten animalientzat ikuskizun oldarkor eta mingarria dela deritzotenak.

Pentsatzen jarraitzen dugu *Jardunaldi* hauen ispiritua didaktikoa eta konstruktiboa dela batez ere: ideak eta iritzia trukatzea, azken batean. Ikastea, eta aldi berean elkarrekiko heziketa: hori da gure helburu nagusia.

ADBE elkarteak AUKERA ASKEKO KREDITU bat emango dio *Animalien Babeserako VI. Euskal Jardunaldietara* datorren EHUko ikasle orori, zeinek, bere presentziaz gain, lan erraza aurkeztu beharko baitu, bertan iritzi pertsonala eta entzundakoa azaltzen dituelarik.

astelehena, azaroak 4

JOSE ANTONIO LOPATEGI

Animaliez baliatzen diren lehiaketa frogen (*Herri Kirolak*) antolatzailea, eta duela hogeita hamar urtetik euskal kultura eta tradizioarekiko zale amorratua. Animaliak erabiltzen diren probetan, baraiek defendatzea du helburu nagusia. Eta, halaber, gure herriaren ondare historiko zein kulturala belaunaldi berriei helaraztea.

ANA MORENO

Animalien eskubideen aldeko ekintzaile beteranoa, erakunde ekologista zein animalistetan lan egin du, ikuskizun publikoetan animaliek jasotako tratu txarren kasuei buruzko dokumentazio ugari lortu duelarik. Albaitaritza Laguntzailea eta Albaitaritza Tekniko Languntzailea ikasketak eginak ditu. Hau guztiarengatik, animalietologiaren gaineko formaketa sendoa dauka, eta baita legedi bebesle zein protokolo legalaren arloan ere.



astearte, azaroak 5

IRATXE LOPEZ DE ABERASTURI (*EH Bildu*)

Turismoan diplomaduna eta Udalbiltzako presidenteordea. Gasteizko Udaleko EH Bilduko zinegotzia, eta bertan “animalien eskubideen” arloari dagokionaren arduraduna. Tokiko Animalien Babeserako Ordenantza lortzeko pasa den maiatzan bukatutako prozesu luzearen Taldeko bozeramailea eta ordezkaria izan zen. Esan daiteke, dudarik gabe, gure inguru geografikoko animalien babeserako ordenantzarik aurreratuenen artean dagoela.

IBON URIBE (*Euzko Alberdi Jeltzalea*)

Ingenieri informatikoa eta Telekomunikazioetan Graduondokoa, biak EHU-UPVko Unibertsitatean egindakoak. Ia hamarkada batez Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) arloan aritu zen aholkulari, zenbait prototipo elektronikoen garapenean parte hartu zuelarik. Galdakaoko (Bizkaia) Udalean sail desberdinetan (Gaztedi, Jai, Musika Eskola, Obrak eta Zerbitzu, edota Ingurugiroari dagozkionak) izan eta gero, 2011tik bertako alkatea dugu.



asteazkena, azaroak 6

LAURA DUARTE (PACMA)

Rey Juan Carlos Unibertsitatean lizentziaduna. Egun, *Partido Animalistako (PACMA)* prentsa arduraduna eta bozeramailea da, non 2010etik baitago, baita bertako Zuzendaritza-Batzordeko kidea izanik ere. Azken urteetako hauteskunde-egitarauak egiteko laguntza eman du. Halaber, alderdiaren kanpaina nagusietan parte hartu du, besteak beste “Rompe una lanza” izenekoan, Tordesillaseko (Valladolid) *Toro de la Vega* delakoaren aurkakoa.

AITOR URRESTI (EQUO)

Industria ingenieria eta EHU-UPVko irakaslea. Energia berriztagarrien eta energia-eraginkortasunaren esparruan hamaikada bat baino gehiago darama lanean. EQUOko kidea dugu alderdia Euskadin sortu zenetik, geroztik zenbait kargutan izan delarik, besteak beste bozeramaile. Azkenengo autonomi hauteskundeetan *Lehendakaritzarako* hautagai izan zen. Egun, *Aldaketa Klimatioaren eta Energiaren Lantaldea* koordinatzailea dugu Estatu mailan.

